

GORBEIA SUZIEN 21K ARAUDIA 2026

1. Eguna eta lekua: Gorbeia Suzien 21K lasterketa 2026ko irailaren 26an izango da. Zeanuriko herritik abiatuko da goizeko 11:00etan.

2. Ibilbideak: 22km luze eta 1300m desnibel positiboa izango dute. Antolakuntzak ordezkotako ibilbide bat prestatuta izango du ibilbidean edo lasterketaren prestaketan arazoak sortzekotan. Ustekabeko arrazoi pisutsu batengatik antolakuntzak lasterketa bertan behera uzteko ahalmena izango du. Kasu horretan, antolakuntzak beste data bat ezarriko du lasterketa egiteko.

3. Puntuagarria: SKYRUNNER WORLD SERIES U23-ko proba izango da.

Araudiak: <https://www.skyrunnerworldseries.com/u23-races/>

4. Parte hartzea: Gorbeia Suzien 21k lasterketan 15 urtetik gorako edozein korrikalarik parte har dezake. Izena ematen duen orok bete behar du araudi hau, baita ISF-rena ere.

5. Kategoriak: 21K-n emakumezkoen eta gizonezkoen kategoria absolutua.

6. Izen-ematea eta dortsalak:

- Gorbeia Suzien 21K mendi lasterketan aurre izen-emateko epea **apirilaren 13an** zabalduko eta **apirilak 17an** itxi.
- Zeanuriko herritarrek eta Arratia bailarako 23 urtez azpikoek aukera izango dute egun bat lehenago izena emateko. Beraz, **apirilak 12an**, arratsaldeko 18.00etatik 19.00etara, Zeanuriko udaletxe azpiko gelan, izena emateko aukera izango duzue NAN-a aurkeztuta.
- Aurre izen-ematea **www.gorbeiasuzien.eus** web orrian dagoen formularioa beteta egin beharko da.
- Antolakuntzak 75 dortsal erreserbatuko ditu: Zeanuriko herritarrentzat, Arratia bailarako 23 urtez azpikoentzat eta eliteko korrikalarientzat.
- Gainerako 200 dortsalak zozketa bidez esleitu dira aurre izen-ematea ezarritako epearen barruan egin duten korrikalarien artean. Zozketa dortsalik egokitu ez zaien korrikalariekin itxaron zerrenda bat osatuko da.
- Zozketarako korrikalari bakoitzak zenbaki bana eskuratuko du.
- Aurre izena emandako guztien artean zozketa **apirilak 19an egingo da**.
- Dortsala egokitutakoen zerrendan egongo direnak 50 euroko ordainketa egin beharko dute **www.gorbeiasuzien.eus** web orriko pausuak jarraituz **apirilak 20tik** aurrera.
- Ez da korrikalaririk onartuko diru sarrerarik egin ezean, horretarako **epe muga 10 egunekoa** izango da mezua jasotzen duzuen egunetik hasita (jasoko duzuen mezuan defektuz 48 ordu dituzuela jartzen badu ere), bestela, itxaron zerrendako hurrengoari emango zaio izen ematea egiteko aukera.

- Dorsalen itzulketa eskuratzeko itxaron zerrendako korrikalariren batek haren lekua hartu beharko du:

2026 URTEA	ITZULIKO DEN DIRUAREN %a
APIRILA-MAIATZA	%80
EKAINA- UZTAILA	%70
ABUZTUA	%60
IRAILAREN 1etik aurrera	EZ DA ITZULKETARIK EGINGO

7. Eskubide eta bete beharrak:


- Gorbeia Suzien 21K lasterketan izena eman duten korrikalariak lasterketaren eta ISF-ren arautegia errespetatu beharko dute.
- Dorsala hartzen den momentuan hau eskuratuko da: proban parte hartzeko eskubidea, istripu eta erantzukizun zibileko aseguru, antolakuntzak ezarritako zerbitzuak erabiltzeko aukera eta lasterketako oparia.
- Dorsala norberarena eta transferiezina izango da. Horregatik, korrikalariak berak hartu behar du, NAN-a aurkeztuz ezarritako lekuan eta orduan.
- Beste korrikalari baten lasterketako poltsa hartzeko derrigorrezkoa izango da pertsona horren NAN-a aurkeztea ezarritako lekuan eta orduan. Epe ohietatik kanpora ez da dorsalik banatuko.
- Bajak direla eta gertatuko diren hutsuneak, itxaron zerrenda errespetatuz beteko dira eta antolakuntzatik zuzenean jarriko dira korrikalari hauekin harremanetan. Kasu hauetan ere izen ematea egiteko baldintza guztiak bete beharko dira dorsala eskuratzeko. Ordainketa egiteko 7 eguneko epea izango da.

8. Seinalizazioa: Ibilbidea behar bezala seinalatuta egongo da. 5 kilometrora helmugara bitarteko distantziak zehaztuko ditugu.

9. Kontrol puntuak: 21K lasterketarako zazpi izango dira ibilbidean zeharreko kontrol puntuak eta derrigorrezkoa izango da bertatik pasatzea. Ibilbideko mapa eta perfiletan zehaztuko ditugu kontrol puntuak.

10. Anoa-guneak:

- Gorbeia Suzien 21K-ko lasterketan helmugakoaz gain, zazpi anoa-gune solido-likido egongo dira. Ibilbideko mapa eta perfiletan zehaztuko dira.
- Anoa-guneetan dauden arduradunen argibideak betetzea derrigorrezkoa izango da. Arau hau ez betetzeak zuzenean lasterketatik kanporatzea ekarriko du.
- Anoa-gunea baino 100m lehenago eta ondoren, anoa-gunearen hasiera eta amaiera seinaleak egongo dira.
- Anoa-gunean, mahaietako aldera ezin izango da laguntzailerik sartu. Lasterketan parte hartzen ez duen kideren baten laguntza jasotzeko, mahaiei gune horretatik kanpo baina anoa-gune eremuaren barruan izan beharko da.



11. Denbora mugak:

- Gorbeia Suzien 21K lasterketan 4 ordu eta 30 minutu baino lehen iritsi beharko da helmugara. Denbora hori gaindituz gero, sailkapenetik kanpo geratuko da korrikalaria.
- Antolakuntzak korrikalaria kanpora dezake tarteko kontroletan aurreikusitako denbora mugak betetzen ez dituelako, lasterketako araudia errespetatu ez duelako, markatutako ibilbidea jarraitu ez duelako, dortsala dagokion moduan ez daramalako, antolakuntzako kideen esanak betetzen ez dituelako edo lasterketako kideekin jarrera desagokia erakutsi duelako.
- Kontrol puntuetan aurreikusitako denbora mugak:

KONTROLA	Km	DENBORA MUGA
Gorbeiako aterpea	9	120 min
Zenigorta	11	180 min
Lanbreabe	17	225 min

- Lasterketa osoan zehar antolakuntzako bi korrikalari azkenengo korrikalarien atzetik joango dira. Korrikalariren bat kanporatzekotan, dortsala entregatu beharko du kontrol punturik

hurbilenean eta lasterketa bertan behera utzi beharko du antolakuntzako kideek agindutako moduan.

12. Sariak:

Gorbeia Suzien 21K lasterketan sariak emakumezkoen eta gizonezkoen kategorietako lehen hiru postuetan gelditzen direnak jasoko dituzte. Sariak bertako produktuekin egindako otzara ederrak izango dira.

13. Azalpen batzarra:

Antolakuntzak azalpen batzar bat eskainiko du lasterketa bezperan, 2026ko irailaren 25ean, arratsaldean, Zeanuriko frontoian. Bertan, ibilbidearen zehaztasun guztiak emango dira.

14. Dorsal banaketa:

Zeanuriko frontoian emango dira dorsalak lasterketa bezperan, 2026ko irailaren 25an, 17:30etatik 20:00etara, baita lasterketako egunean bertan ere, goizeko 07:00etatik 8:30etara eta 9:30-etatik 10:30etara.

15. Ingurumena:

Gorbeia Suzienek 2024an Europarcek FEDMERen bidez emandako Green Label ingurumen ziurtagiria lortu zuen ingurumen praktika onengatik, eta hurrengo edizioetan berriro egin zuen. Aurten, gainera, Gorbeia Suzien lasterketak bat egingo du Kilian Jornet Fundazioak Green Trail Concept izenarekin garatutako trail ekitaldietarako jasangarritasun ziurtagiria lortzeko bultzatutako ekimenarekin.

Lehiakide bakoitzaren betebeharra da proba garatzen den ingurumena errespetatzea, eta, era berean, bere hondakinak, latak, paperak eta abar eraman beharko ditu antolakuntzak adierazitako lekura edo lekuetara iritsi arte. Lehiaketan hautsitako makila kontrol batean entregatu ahal izango da. Gaituta ez dagoen eremu batean uzten edo botatzen dituen korrikalaria deskalifikatu egingo da.

- Korrikalari guztiek antolakuntzak markatutako ibilbidea egin beharko dute, hau ez errespetatzeak edo ezarritako kontrolen bat ez igarotzeak 15 minutuko zigorra edo deskalifikazioa ekar lezake.
- Parte-hartzaileek, ibilbidean zehar, kontrolen ardura duten pertsonen jarraibideak bete beharko dituzte uneoro. Hori ez egiteak 15 minutuko zigorra edo deskalifikazioa ekar lezake.
- Lehiakideek kirolean jokatu behar dute uneoro, eta errespetua erakutsi behar diete gainerako kirolariei, epaile-taldeari, gainbegiraleei, kontrolei eta erakundeko kideei. Hori ez egiteak 15 minutuko zigorra edo deskalifikazioa ekar lezake.
- Lehiakideek gel eta bilgarriak dorsal zenbakiarekin identifikatuta eramango dituzte. Irteerako materialaren kontrolean, nahitaezko gainerako materialaren ondoan erakutsi beharko dituzte. Arau hori ez betetzeak probatik deskalifikatzea ekarriko du.

- Parte-hartzaileek ez dute zaratarik eta oihurik egingo, laguntza-eskaeren kasuan izan ezik. Arau hori ez errespetatzeak 15 minutuko zigorra edo deskalifikazioa ekar lezake.
- Erabat debekatuta dago parkeko edozein elementu, flora eta abar haustea edo aldatzea. Horrek 15 minutuko zigorra edo deskalifikazioa ekar lezake.

16. Osasun zerbitzua:

Puntu estrategikoetan osasun zerbitzua jarriko da, baita irteera gunean ere.

17. Segurtasuna: Antolakuntzak ibilbidea alda lezake korrikalarien segurtasuna bermatzeak hala eskatuko balu. Bertan behera ere utz dezake lasterketa eguraldia edo halabeharrezko beste edozein baldintza medio.

18. Istripuak:

Korrikalariak zauritutako kideak laguntzera behartuta daude, baita kontrol puntuetan informatzera ere.

19. Ezinbesteko materiala eta oharrak:

- **Haizearen kontrako jaka** eramatea derrigorrezkoa da eta bakoitzaren neurrikoa izan beharko da, mahuka luzeduna eta txanoduna. Txano gabekoa izatekotan, aparteko txapela, buffa edo burua osorik estaltzen duen antzeko janzkiren bat eraman beharko da.
- **Manta termikoa** eramatea derrigorrezkoa izango da.
- Eguraldiaren arabera, antolakuntzak beharrezko material gehigarria eska lezake, adibidez, euritarako jaka.
- Anoa-guneetan **ez da edalontzirik egongo**, korrikalariak berak eraman beharko du bere edalontzia.
- Lehiakideek **gel eta bilgarriak dorsal zenbakiarekin identifikatuta** eramango dituzte. Irteerako materialaren kontrolean, nahitaezko gainerako materialaren ondoan erakutsi beharko dituzte. Arau hori ez betetzeak probatik deskalifikatzea ekarriko du.

20. Oharrak:

- Derrigorrezko materialaren kontrola egingo da irteeran eta helmugan. Irteerako kontrolera aurrerapen nahikorekin joan behar da.
- Dortsala bular parean eraman behar da, eta ahal den neurrian, une oro ikusgai. Kontrol guztietan erakustea eskatuko da.
- Lasterketa uztekotan, kontrol batean egin behar da. Derrigorrezkoa izango da dortsala kendu eta antolakuntzaren esku uztea. Berreskuratu nahi izatekotan, antolakuntzari jakinarazi behin lasterketa amaituta.
- Ez da antolakuntzaren betebeharra lasterketa utzi duten korrikalariak herrigunera eramatea. Hala ere, antolakuntza laguntzen saiatuko da posible den neurrian.
- Hornikuntzarik ezin da jaso hornidura guneetatik kanpo.

- Bastoiak erabili daitezke. Hala ere, irteeratik San Justoko ermitaraino ezin dira erabili eta tolestuta eraman behar dira. Bastoiok kontrol eta hornidura guneetan hartu eta utzi ahal izango dira, beti ere korrikalariaren ardurapean.
- Lasterketa egunean kontsigna zerbitzua egongo da dortsalak hartzeko gunearen ondoan.
- Irteerako guneak eta beroketa guneak ikusi irudian.

